

# Gartxot bardoari buruzko animazio filma gaur iritsiko da zinemetara

JUANJO ELORDI ETA ASISKO URMENETAREN FILMAK ARTURO KANPIONEN NARRAZIO BAT DU OINARRI

XII. mendeko Orreagan girotua, Nafarroako konkistaren garaia islatzen du euskara hutsean egindako filmak

MIREN MINDEGIA

IRUÑEA. *Gartxot, konkista aitzineko konkista* animazio filma zinemetara iritsiko da gaur. Juanjo Elordi eta Asisko Urmenetaren zuzendaritzapean, XII. mendeko bardo edo kantari baten bizitza kontatzen digu istorioak, *Gartxot, Itzaltzuko bardoa* Arturo Kanpionen narrazioan oinarrituz. Somugak ekoiztutako filma euskara hutsean egin da eta Benito Lertxundi eta Mixel Etxekopart musikarien parte hartzea izan du.

Bardoak herriaren oroimena eta kultura gordetzen eta bultzatzen zuten kantariak ziren. Hala, filmak bardo horietako baten bizitzako pasarte bat kontatzen du: Orreagara abade berria iristen denean, Gartxot, bertako bardoa, herritik kanporatu eta Mikelot bere semea bahituko dute eliza kristauaren jarraitzaileek, latinez kantatuko duen fraidea bilakatzeko helburuarekin. Baina Gartxotek ez du bere semea bakarrik utziko. Mikelotek ihes egitea lortu eta aita-semea kantari ibiliko dira herriz herri, elizako soldaduak atzetik dituztela. Euren kantuak errepresioaren aurkako oihuan bilakatuko dira.

Zuzendariak, Campionek 1917an idatzitako narrazioa aberastu eta gaurkotu nahi izan dute, "ez genuelako film didaktiko bat izatea nahi". "Istorioak transmititzen zuen emozioa islatzea izan da gure helburua", aipatu zuten atzo Nafarroako Filmetan egindako aurkezpenean.

Xehetasun historikoekiko zuhur mantendu dira egileak, hala ere. Ildo horretatik, garai hartako Zaraitzuko euskal hizkera ahal

bezainbeste zehaztu nahi izan dute, euskalki zuberotarrera gehiago hurbilduz: "Helburua euskara natural bat lortzea zen, Salazarko euskarari ahalik eta gehien iruditzeaz gainera. Aldi berean, egungo euskaldunarentzat ulergarria izan behar zen", aipatu dute zuzendariak.

Musikari dagokionez, filmaren egileek Benito Lertxundiren laguntza jaso dute. Abesti nagusiak Olatz Zugastirekin batera konposatzeaz gain, Nafarroako erregearen pertsonaiari ahotsa ezarri dio. Ahotsak jarri dituzten aktore gehienek Zuberoako pastoraletan iaioak izan dira. Hala, Mixel Etxekopartena da Gartxoten ahotsa, eta Luxi Agergarai eta Maika Etxekopart (Amaren Alabak taldekoak biak), Mikelot eta



Filmeko zuzendariak, Juanjo Elordi eta Asisko Urmeneta, atzoko aurkezpenean. ARGAZKIA: IBAN AGUINAGA

Xune pertsonaien azalean sartu dira. Somuga produkzio-etxeaz aparte, REC soinu-etxeak, ETBk eta Bartonfilms banatzaileak ere parte hartu dute, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak, Nafarroako Gobernuak, Udalbide-udalbiltzak, Euskararen Kultur Erakundeak, Berria egunkariak eta Elkarrek bultzatutako proiektu honetan. Filma euskarazko bertsioan soilik aurkituko den arren, kopietako batzuk gazte-

lera, frantses, galego eta katalanezko azpitoluak dauzkate.

Juanjo Elordik lau animazio pelikula egin izan ditu aurretik eta Asisko Urmeneta komikiaren munduan mugitu izan da gehiago. 2003an Urmenetak Gartxot komikia argitaratu zuen, film honen abiapuntua izan dena.

**FILM LABURRETIK LIBURURA** Lau urteko lana darama bizkarrean

*Gartxot, konkista aitzineko konkista* filmak. Ibilbidea izenburu berdineko film laburrekin hasi zen eta, zinema jaialdi desberdinetan bildutako kritika positiboaren ondoren, film luzerako saltoa ematea erabaki zuten egileek. Orain, filma egiteko beharrezkoa izan den dokumentazio lan guztia liburu batean bildu nahi izan ditu Elkar argitaletxeak, Durangoko azokan aurkezteko.

## La película de animación en euskara 'Gartxot' se proyectará también con subtítulos en castellano

EL LARGOMETRAJE, BASADO EN UNA NARRACIÓN DE ARTURO CAMPIÓN, SE SITUA EN EL RONCESVALLES DEL SIGLO XII

PAMPLONA. El largometraje de animación en euskara *Gartxot, konkista aitzineko konkista* (Gartxot, la conquista antes de la conquista) se estrenará hoy tanto en euskara como con subtítulos en castellano.

Dirigida por el cineasta Juanjo Elordi y el dibujante Asisko Urme-

neta, la película se basa en la narración *El bardo de Itzaltzu* (1917) de Arturo Campión y cuenta la historia de Gartxot y su hijo Mikelot, dos bardos (trovadores que cantan en euskara) que sufrirán la represión de la iglesia cristiana en el Roncesvalles del siglo XII.

El nuevo abad de Roncesvalles destierra a Gartxot para quedarse con la voz prodigiosa de su hijo Mikelot y convertirlo en monje cantor. Su objetivo es que sustituya el euskara por el latín. Pero cuando Mikelot consigue escapar junto a su padre,

sus cantos se convertirán en la voz contra la opresión que comienza a ser patente ante la próxima conquista de Navarra.

En cuanto a la banda sonora, la película ha contado con la participación del músico Benito Lertxundi que, además de poner voz al personaje del Rey de Navarra, a compuesto las canciones. La mayoría de las voces han sido dobladas por músicos suletinos como Mixel Etxecopar (Gartxot); o Luxi Agergarai (Mikelot) y Maika Etxekopart (Xune), del grupo musical Amaren

Alabak. Producido por Somuga y con la participación de la Consejería de Cultura del Gobierno Vasco, el Gobierno de Navarra, EITB, Udalbide-Udalbiltza, Euskararen Kultur Erakunde, Berria y Elkar, la película tiene como precedente el cortometraje con el mismo título que ya se presentó en varios festivales y que el año pasado fue nominado al Goya de animación.

El proyecto también ha contado con el apoyo del Ayuntamiento de Itzaltzu, el Valle de Salazar y Gartxot Ekimena. >M.M.P.

KRITIKA > IPUIN BILDUMA

## Beste Dekamerone tipi bat

### DEKAMERON (HAMAR IPUIN)

Jatorrizko izenburua: Decameron Egilea: Giovanni Boccaccio Itzultzailea: Matías Múgica Argitaratze urtea: 2011 Argitaletxea: Igela ('Bidelagun' saila)

ANDER IRIZAR

IAZ jarri zuen abian Igela itzulpen-argitaletxeak gazteei zuzenduriko *Bidelagun* saila, eta sail horretan argitaratu du -azaleko irudiak norbaiti besterik pentsaraz badiezaioke ere- *Decameroneko* hamar ipuin biltzen dituen liburu hau. Bigarren hezkuntzako curriculumetan ageri den Trecentoko klasiko hau, ikastetxeetan, Castalia argitaletxearen argitalpenaren bidez landu izan da, eta gaztela-

niazko argitalpen hori izan dute abiapuntu, hain zuzen, liburu hau prestatzean. Bigarren hezkuntzara dagoenez hein batean bideratua, liburuak irakurketa-gida bat ere badu amaieran, eta, irakurle ez hain trebatuaren lagungarri, oin-ohar mordoxkada bat ere bai, non, zenbait hitzen esanahiarekin batera -behin hasita, hitz gehiagoren esanahia argitzea ere ez zen sobera egongo-, bestelako argibide eta jakingarriak ere ematen diren.

Edonola ere, klasiko bat den heinean, edonorentzat gerta daiteke interesgarria horrelako lan bat. Gabriel Arestik berak ere aspalditxo jo zuen begiz *Decameron*, eta, hala, itzulpenak gurean hain ohikoak ez ziren garaietan, jatorrizko ehun ipui-

netatik hamabost ekarri zituen euskarara *Dekamerone tipi bat* izenburupean. Oraingo hau Matías Múgica euskaratu du -bada lehenago ere lan garrantzitsuak itzulia iruindarra, hala nola Célineren *Gauaren muturrerainoko bidaia*-, baina Múgica, ordea, ez dio Arestik erabili zuen lapurtera klasikoko ereduari jarraitu. Egia esateko, kontuan izanda *Decameron XIV*. mendean idatzitako testua dela, Arestiren eredu agian hobeki lotzen zaio jatorrizkoari, baina har dezagun kontuan, bestalde, toskanera arruntean idatzi zuela Boccacciok *Decameron*, hau da, herri-hizkeran, eta badela arrazoirik, beraz, testua, jatorrizko prosaren zenbait ezaugarri gordez, irakurle arruntari hurbiltzeko.

Antzeko zerbait gertatzen da ipuinen hautaketarekin ere. *Decameron*-en, izurri beltza dela-eta Florentziatik ihesi joandako zazpi neska- eta hiru mutilen istorioa kontatzen da, eta, marko horren barruan, hamar lagun horiek hamar egunetan elkarrizkatzeko dituzten ipuinak; hau da, guztira, ehun ipuin. Ipuin horietatik, ordea, gaurko irakurleari atsegin edo ulerterraz gerta dakizkiokeen hamar ale biltzen dira hemen.

Ipuinok, seguruenik, gaur egun baino harrigarriago gertatuko zitzaizkien, eta hein batean beraz atseginago, garai bateko irakurleei. Izan ere, oso obra berritzailea izan zen *Decameron*. Berritzailea, bai egituraren aldetik, ipuinak, ordura arte

ez bezala, mekanismo landu eta konplexu baten bidez baitzeuden josiak, eta bai, Errenazimentuari aurrea hartuta, profanoa zelako Boccacciok zerabilen ikuspegia. Horren ondorioz, Europa guztian barrera zabaltzen ziren *Decameronen* itzulpenak, oso baliagarriak gertatu zirenak, besteak beste, tokian tokiko hizkuntza arruntan eredu literarioak finkatzeko bidean. Olatu hura ez zen iritsi orduan euskararen itsasbazterrean; orain beste egoera batean heldu zaigu klasiko hau. Xabier Olarra editoreak liburuaren sarreran dioen moduan, "ea liburu hau irakurtzea lagungarri gertatzen den norbaitentzat, literaturaren arloan lehenik, eta hortik aurrera ahal den arlo guztietan".